

**LANERATZEA SUSTATZEKO PROGRAMA, LAN BERRI. LANGABEZIAN DAUDEN
 PERTSONEI (45 URTETIK GORAKOAK, IRAUPEN LUZEKO LANGABEZIAKOAK,
 DESGAITASUNEN BAT DUTENAK, ETA BAZTERKERIA-ARRISKUAN DAUDENAK)
 LANERATZEN LAGUNTZEKO PROGRAMA**

ORIENTAZIOA, AKTIBAZIOA, TALDE PRESTAKUNTZA, BITARTEKARITZA ETA LANERATZEA

Helburua	45 urtetik gorako pertsoneri, iraupen luzeko langabeziakoei, desgaitasunen bat dutenei eta bazterkeria-arriskuan daudenei lan merkatuan laneratzen laguntzea
Onuradunak	45 urtetik gorako pertsonak
	Desgaitasuna duten pertsonak
	Langabezian denbora luzean daramatenak
	Gizartean baztertuta geratzeko arriskua dutenak
Erakunde onuradunak	Bizkaiko Lurralde Historikoko udalak.
	Bizkaiko Lurralde Historikoko udal izaerako enplegu eta tokiko garapenerako zentroak, edo erakunde autonomiadunak, enpresa publikoak edo haien mendeko edo haiekin lotutako bestelako erakundeak.
	Bizkaiko Lurralde Historikoko fundazioak, elkarteak eta irabazi-asmorik gabeko beste erakunde batzuk (laneratze edo/eta beste lanpostu bat lortzeko programen arloan hiru urteko esperientzia minimoa dutela egiaztatu behar dute)
Diruz lagundu daitekeen egitatea	Lan-merkatuan laneratze ibilbide bat egitea.
Diru-laguntza jaso dezakeen jardueraren edukia	<ul style="list-style-type: none"> Lan-orientazioa: banakakoa, gutxienez 5 ordu eta gehienez 15 ordu parte-hartzaile bakoitzeko. Lan-aktibazioa: taldekoa, gutxienez 5 ordu eta gehienez 20 ordu ibilbide bakoitzeko. Lan-bitartekaritza: banakakoa, gehienez 10 ordu parte-hartzaile bakoitzeko. Prestakuntza: taldekoa, 8-20 pertsona prestakuntza-jarduera bakoitzeko. Prestakuntzak prestakuntza-ekintza hauek izan ditzake: <ol style="list-style-type: none"> Oinarrizko konpetentzia digitalak (aukerakoa): 20-60 ordu. Prestakuntza teknikoak: 60-600 ordu. Gaitasun soziolaboralak (aukerakoa): Gehienez 60 ordu. Prestakuntza berdintasunean: gutxienez 7 ordu. Laneratzea: gutxienez laneratze-ibilbidean parte hartu duten pertsonen % 15
Diru-laguntzaren zenbatekoa	Muga erakunde eskatzaile bakoitzeko: 120.000,00 euro
	Muga laneratze-ibilbidearengatik: 90.000 euro
	Laugarren laneratzea merkatu arruntean: 3.000 euro; laneratze gehigarria: 3.000. Laneratzeengatik laguntzaren muga: 9.000 euro
Araudia	Bizkaiko Foru Aldundiaren 207/2023 Foru dekretua, abenduaren 21ekoa (BAO, 5. zbkia, 2024ko urtarrilaren 8koa), Bizkaiko Lurralde Historikoko laneratzea sustatzeko Lan Berri Programaren 2023ko ekitaldiko dirulaguntzen oinarriak eta deialdia ezartzen dituena. Dirulaguntzak emateko prozedura norgehiagoka araubidearen bidez izango da.
Epeak	Ekintzak egiteko epeak: 2024ko irailaren 1etik 2025ko urriaren 31ra
	Eskabideak aurkezteko epea eta era: Eskabideak aurkezteko epea 2024ko urtarrilaren 29ko 9:00etan hasi eta 2024ko otsailaren 29ko 13:30ean amaituko da. Eskabideak Internet bidez aurkeztu beharko dira, Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren bulego birtuala erabiliz. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikora sartu behar da (www.ebizkaia.eus), eta

LANERATZEA SUSTATZEKO PROGRAMA, LAN BERRI. LANGABEZIAN DAUDEN
PERTSONEI (45 URTETIK GORAKOAK, IRAUPEN LUZEKO LANGABEZIAKOAK,
DESGAITASUNEN BAT DUTENAK, ETA BAZTERKERIA-ARRISKUAN DAUDENAK)
LANERATZEN LAGUNTZEKO PROGRAMA
ORIENTAZIOA, AKTIBAZIOA, TALDE PRESTAKUNTZA, BITARTEKARITZA ETA LANERATZEA

	bertan Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko sailaren bulego birtuala aukeratu.
--	--

ENPLEGUA, GIZARTE KOHESIOA ETA BERDINTASUNA SUSTATZEKO SAILA

ENPLEGUA SUSTATZEKO ZERBITZUA

Mazarredo zumarkalea 63 behe, ezkerrekoa – Bilbo 48009

Informazioa: Telefonoa: 94 406 8008 - lanera.enplegua@bizkaia.eus